

Zer behar edo arazo konpontzen duzue?

Gure "Liburugram" aplikazioa disenuari dagokionez beste aplikazioen antzekoa izango da, baina prezioari begiratuz berritzaileagoa egiten saiatu gara 3 aukera desberdin eskainiz. Alde batetik, 2. eskuko liburuak saltzeko aukera bermatuko dugu eta hauek noski prezio baxuagoa izango dute. Bestetik, liburuak elkar trukatzeko ere jarriko dugu aukeran, distantziaren arabera kostu txiki baten ordainetan, platemakako erabiltzaileek posta bidez elkarri liburuak bidaltzeko aukera edukiko dute. Distantzia hau 250km baino txikiagoa bada kosturik gabeko trukea izango da. Azken aukera edozein liburutegieen antzera liburu berriak erostea izango da.

Hortaz, konpontzen dugun arazoa apalean ditugun liburuari erabilgarritasun bat ematea da eta baita erosotasuna eskainiaz eta prezioa jaitsiz irakurtzea edozeinen esku egotea

Zer bereizten zaitu eta, beraz, zergatik egongo da bezeroa zuri ordaintzeko prest?

Hasteko, bezeroari edozein liburu dendetan baino prezio anitz gehiago eskainiko dizkiogu liburu beraren ordean. Gainera, liburuak posta bidez bidaltzeko aukera zabalduko dugu aplikazioan eskuragarritasuna bermatuz. Hori gutxi balitz, berritasun bat dakar aplikazioak, dirurik ordaindu gabe aplikazioko erabiltzaileak beraien artean liburuak elkar-trukatzen lagunduko baitiegu. Azkenik, "Liburugram" aplikazioak zure zaletasunen arabera liburuak gomendatuko dizkizu, hauek bilatzen ibiltzeko denbora eta lana erraztuaz.